

OINARRIAK

1. LEHIAKETAREN HELBURUA

Lehiaketaren helburua 2026ko Zangozako zaindariaren jaiekin zerikusia duen kartel bat aukeratzea da.

2. MAILAK

Bi maila ezartzen dira: helduak eta 16 urte artekoak (barne).

3. OBREN BALDINTZAK

- Obrek baldintza hauek bete beharko dituzte:
- Jatorrizko lanak eta argitaragabeak izatea, eta lan osoan edo zati batean ez izatea beste artista batzuen lanen, argazkien, kartelen eta pinturen kopia, plagio, birsorkuntza edo aldaketa, edozein modalitatetan argitaratuak.
- Ez dira onartuko Zangozako Kartel Lehiaketaren beste edizio batzuetan aurkeztutako kartelak.

4. AURKEZTEKO EPEA

Obrak aurkezteko epea maiatzaren 4an irekiko da eta 2026ko ekainaren 1eko 14:00etan amaituko da. Obrak Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxean aurkeztu edo bertara bidali beharko dira. Alfontso Borrokalaria karrika 20. 31400 Zangoza. Ezin da epea luzatu.

5. AURKEZTEKO BALDINTZAK.

5.1 Helduen maila

- Euskarri zurrun baten gainean jarri beharko dira, eta 60 cm-ko altuera eta 42 cm-ko zabalera izan beharko dute. Neurri horiek ez dituzten lanak ez dira onartuko.
- Kartelean, nolabait, honako testu hauek agertuko dira, gaztelaniaz/euskaraz ordenatuta:

Fiestas de Sangüesa-Zangozako Jaiak

2026

Del 11 al 17 de septiembre

Irailaren 11tik 17ra

- Halaber, kartelean hiriko udal armarri ofiziala agertu beharko da, posta elektronikoz honako helbide honetan eskatu ahal izanen dena: infocultura@sanguesa.es. Armarrria koloretakoa edo kolore bakarrekoa izan daiteke. Udalaren armarri ofiziala duten kartelak baino ez dira onartuko.
- Egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira.
- Kartelarekin batera JPG formatuko fitxategi digital bat aurkeztu beharko da. Fitxategiak bereizmen handia izanen du (gutxienez 300 pixel hazbeteko).
- Fitxategiaren pisua ez da 2 MBtik beherakoa izanen, ezta 5MBtik gorakoa ere, epaimahaiak lan finalista gisa aukeratzen badu, udalaren webgunean argitaratu eta herri-bozketa egin ahal izateko.
- Kartelarekin batera, gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da, eta horren kanpoaldean aurkeztutako obraren izenburua agertuko da. Barruan idatziz jasoko dira egilearen datu pertsonalak: izena, abizenak, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, NANaren fotokopia, adina eta sinatutako aitortpena, oinarri hauek jasotzen dituen I. eranskineko ereduaren arabera.
- Kartelak behar bezala enbalatuta etorri beharko dira.
- Egile bakoitzak nahi adina obra aurkeztu ahal izanen ditu.
- Ezin izanen da adimen artifizialak sortutako kartelik aurkeztu.

5.2 16 urte artekoen maila (barne)

- A3 formatu bertikalean aurkeztu beharko dira (42 x 29,5 cm). Neurri horiek ez dituzten lanak ez dira onartuko.
- Kartelaren beheko eskuineko izkinan, parte-hartzailearen adina ikusi beharko da.
- Kartelarekin batera, gutun-azal itxi bat jarriko da, eta horren kanpoaldean, aurkeztutako obraren izenburua eta zein mailalara aurkezten den adieraziko da. Barruan, idatziz jasoko dira egilearen datu pertsonalak: izena, abizenak, helbidea, telefonoa, NANA (hala badagokio) eta lehiakidearen eta legezko tutorearen helbide elektronikoa.

6. SARIAK

- Helduen mailara aurkeztutako kartelek (17 urtetik gorakoak) 700 €-ko sari bakarra jasotzeko aukera izanen dute. Sari hori Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura finantzatuko da. Zenbateko horri PFEZaren kontzeptuan dagokion atxikipena aplikatuko zaio.
- 16 urte artekoen mailara aurkeztutako kartelek 100 €-ko sari bakarra lortu ahal izanen dute sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten

eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa...). Erosketa egiteko epea 2026ko irailaren 11tik abenduaren 12ra izanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura eginen da.

- Sari-banaketa 2026ko irailaren 11n eginen da, Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, San Sebastianen omenezko zaindariaren jaien hasiera-egunean.

7. EPAIMAHAIA ETA KARTELAK HAUTATZEA

Epaimahaiaren osaera

- Epaimahaia honela osatuko da: Epaimahaia Kultura eta Jai Batzordeko zinegotzi batek osatuko du, Udala osatzen duten talde politiko bakoitzeko. Kultura teknikaria idazkari gisa arituko da, hitzarekin baina botorik gabe.
- Kultura eta Jaietako Batzordeko kide diren zinegotziek ordezkariak eskuordetu ahal izanen dute, baldin eta Kultura teknikariari idatziz jakinarazten badiote epaimahaia biltzeko adierazitako eguna baino 7 egun lehenago gutxienez.

Kartelen hautaketa

- **Helduen mailan** epaimahaiak gutxienez hiru kartel eta gehienez bost kartel finalista aukeratu ahal izanen ditu.
 - Epaimahaiak herri-bozketarako aukeratu karteletako batek akatsak baditu Zangozako udal-armarri ofizialean eta/edo testuetan (bigarren eta hirugarren paragrafoetan 5.1. puntuan nahitaezkoztat agertzen dira), eta, betiere, aurkeztutako jatorrizko diseinuan eraginik ez badu, kartelaren egileari eskatu ahal izanen zaio zuzentzeko, bozketaren parte izan dadin.
 - Formatu digitalaren zuzenketa gehienez ere 24 orduko epean egin beharko da, kartelaren hautaketa jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita, eta ahalik eta lasterren bidali beharko da zuzendutako kartela formatu fisikoan. Hori egin ezean, kartela hautaketatik kanpo geratuko da.
 - Epaimahaiak lehiaketa esleitzeke uzteko aukera izanen du.
 - Epaimahaiari dagokio oinarri hauetan aurreikusi ez den edozein gorabehera ebatzea.
 - Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da, eta jakitera emateko azken eguna 2026ko ekainaren 12a izanen da.
 - Jarraian, herritarrek parte hartzeko aldi bat irekiko da, banakako bozketaren bidez. Horrela, herritarrek gehien bozkatzen duten kartela izanen da lehiaketaren irabazlea. Herritarrek parte hartzeko epea behar bezala jakinaraziko da.

- Herri-bozketarako prozedura honako hau izanen da:
 - o Zangozan erroldatuta dauden 18 urtetik gorakoek eman ahal izanen dute botoa.
 - o Pertsona bakoitzak behin eta kartel bakar baten alde eman ahal izanen du botoa.
 - o Bozketa online eginen da, Zangozako Udalaren web-orrian: www.sanguesa.es.
 - o Aukeratutako kartelak web-orrian eta Kultur Etxean ikusi ahal izanen dira bozketak dirauen bitartean.-
- Kartel irabazlea 2026ko jaietako egitarauan argitaratuko da.
- **16 urte artekoen mailan**, epaimahaiak aukeratuko du kartela, eta 2026ko jaien egitarauan argitaratuko da.

Bi mailletako irabazleak 2026ko uztailaren 3a baino lehen jakinaraziko dira jendaurrean.

8. KARTELEN EGILETZA

- Kartelen egiletza ezin izanen da jakitera eman lehiaketa ebatzi baino lehen.
- Lehiaketan parte hartzea anonimoa da, eta hala mantendu behar da lehiaketaren fase guztietan. Kartelen irudiak ezin dira zabaldu (hautatuak izan ala ez), ezta parte-hartzaileen egileenak ere, kartel irabazlea ofizialki jakinarazi arte.
- Anonimatua izateko betebeharrari buruzko oinarriak betetzen ez badira, egileak) eta obra (k) lehiaketatik kanporatuko dira.

9. SARITUTAKO LANEN JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDE EKONOMIKOEN JABETZA

- Sariak ordainduta, Zangozako Udalak kartel irabazleak erosi eginen ditu, eta saritutako egileak edo egileek Zangozako Udalari emanen diote saritutako lanari datxezkion jabetza intelektualeko eskubide ekonomiko guztien jabetza eskusiboa, eta askatasunez egin ahal izanen du kartela ustiatzeko edozein modu, hala nola erreprodukzioa, banaketa publikoa edo eraldaketa, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateginaren 26. artikuluan adierazitako epean.
- Obra edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ukiezin bidez adierazteko eskubidea izanen du, ustiapen-modalitate guztiak barne, edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzeko eskubideak barne, bai eta obra banatzeko eta jendaurrean komunikatzeko eskubideak ere, merkataritza-ustiapenerako.

- Berariaz sartzen da obrak online emititzea eta transmititzea eta internet moduko sare digital interaktiboen bidez eskuragarri jartzea. Era berean, Udalak erreproduzitutako kartela merchandising-eko edozein euskarriren gainean ustiatu ahal izanen du, zuzenean edo hirugarren bati ustiapena baimenduz.

10. AURKEZTUTAKO KARTELEN ERAKUSKETA

- Zangozako Udalak erakusketa bat antolatzeko eskubidea izanen du, aurkeztutako kartel guztiekin edo batzuekin.
- Erakusketaren datak helduen mailara aurkeztutako lanen egileei jakinaraziko zaizkie. Obra horiek erakusketan agertuko dira, izenburua eta egilea adierazita.
- Egileek kartelak erretiratu ahal izanen dituzte Zangozako Kultur Etxearekin harremanetan jarriz, erakusketa itxi eta hilabeteko epean. Epe hori igarotakoan, egileek uko egiten dietela ulertuko da, eta erreklamazio edo kalte-ordainerako eskubide oro galduko dute. Kartelak bidaltzeko eta itzultzeko gastuak lehiakideek ordainduko dituzte.
- Zangozako Udalak ez du bere gain hartzen balizko kalteen, galtzeen eta obren itzulketaren erantzukizunik lehiaketa amaitu ondoren.

11. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Lehiaketan parte hartzearen ondorioz bilduriko datu pertsonalen arduraduna Zangozako Udala da. Datuak lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira, 679/2016 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikuluan oinarrituta. Aplikatu beharreko araudiaren arabera gordeko dira (51/2016 Foru Agindua, ekainaren 14koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariarena, Toki-erakundeen dokumentuak ebaluatzeko eta ezabatzeko jarraibideak onartzen dituena).

Identifikazio-datuak komunikabideei utzi ahal izanen zaizkie, eta udalaren webgunean eta Udala presente dagoen sare sozialetan argitaratu ahal izanen dira. Titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubidea erabil ahal izanen dute, beren egoera partikularrarekin zerikusia duten arrazoiengatik. Hori guztia Udalera joz egin ahal izanen dute, eta han eskubide horiek erabiltzeko ereduak emanen dizkiete, webgunearen bidez edo dpd@sanguesa.es helbidean. Era berean, eskubidea dute Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (aepd.es) erreklamazio bat aurkezteko, tratamendua indarrean dagoen araudiarekin bat ez datorrela uste badute.

12. HELEGITEAK

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek erabat onartzen direla.

Oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, nahi izanez gero, honako helegite hauek aurkez daitezke:

- Berraztertze errekurtoa jartzea administrazio-egintza egin duen udal organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera edo, hala badagokio, errekurritzen egintza argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Gora jotzeko helegitea Nafarroako Administrazio Auzitegian, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hilabeteko epean.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtoa Nafarroako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.